

eskoHitza

urtez urte



2011

Hartu hitza!

*Denok denona entzun
eta bakoitzak berea esan*

2012

**Zertan erabili
eskoriatzarron dirua?**

*Udal aurrekontuak egiteko irizpideak
denon artean adostu*

2013

**Krisiaren aurrean
zer proposatzen duzu?**

Zertan erabili 10.000 euro

2014

**EskoHitza:
denona delako**

*Orain arte egindakoaren
balantzea eta urrats berriak*



www.eskoriatza.net



2011

Parte-hartzea modan dago eta politikoki zuzena da, baina hitz hori askotan arinki erabiltzen dugu. Zer da gure ustez benetako parte-hartzea? Lortu nahi den helburua garbi izanik, gogoeta eta debate irekia zabaltzea bizipen eta ikuspegi anitza dutenekin. Asmo horrekin sortu genuen EskoHitza.

Hartu hitza

Denok denona entzun eta bakoitzak berea esan

2011ko azaroan jaio zen EskoHitza, Eskoriatzako Udalak herritarren ideiak, iritziak eta iradokizunak jasotzeko **parte-hartze prozesu irekia**. Bilera egin ziren Eskoriatzako hainbat eremutan lan egiten duten elkarteetako kideekin eta haien ideiak eta ekarpenak jaso ziren.

Horrez gain, ekitaldi ireki bat antolatu zen kiroldegian. Bertara 16 urtetik gorako herritarrak gonbidatu genituen: baserritarrak nahiz kaletarrak; alderdi bateko zein besteko boto emailleak; elebakar edo ele anitzak; sexua, kolorea eta bestelakoak kontuan izan gabe.

Herritarrak elkarreraginean jarri genituen, **denok denona entzun eta bakoitzak berea esateko**. Eskoriatzan mantendu beharreko balioei, hobetu beharreko gaiei eta eskaini nahiz sortu beharreko zerbitzuei buruz hitz egiteko aukera egon zen.

Zertan dira orduan esandakoak

Hiru urte igaro ondoren, garaia da egindakoa aztertu eta **kontuak emateko**. Ondorengo tauletan ikus daiteke, orokorrean, jarritako helburuen betetze maila.

Taula hauek laburpen bat dira eta nahi duenak informazio hau modu zabalagoan aztertu dezake honako webgunean:

www.eskoriatza.net



ELIZATEAK

Elizateak Eskoriatzako errealitate sozioekonomiko garrantzitsu bezala ulertuta, azpiegitura egokiak izateko urratsak eman ditugu.



ESKAERA

KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK: INTERNET ETA TELEBISTA

URA: UDAL SAREA HEDATZEA

NEURRI KONPENTSATZAILEAK AP-1 AUTOPISTA EGITEAGATIK

ERREPIDEAK: KONPONKETAK, ZOLADURAK

SUTEEN AURKAKO AZPIEGITURAK

BIDEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

HOBEKUNTZAK ARGIZTAPENEAN

ERANTZUNA

— Gipuzkoashare proiektuaren bitartez internet zerbitzua eraman da Gellaora, eta laster, beste eremu batzuetara hedatzea nahi da.

✓ Mendiolan inbertsioak egin dira udal ur zerbitzua herritar gehiagori heltzeko.

— Marin, Zarimutz eta Mazmelako proiektuak Idatzi dira, eta Marinekoa exekutatu da. Zarimutzekoa eta Mazmelakoa egingo dira eta Eskoriatzako eta Apotzagakoa 2015ean.

✓ Leteko bide-zorua berritu da eta Bolibarko hainbat bide hormigonatu dira. Apotzagan, Zarimutzen eta Marinen ere bide batzuk konpondu dira.

— Gellaon ur-harguneak jarri dira, eta suteen aurkako ekipamenduak erosi dira auzo guztietarako. Horietako batzuk instalatzea falta da.

✗ Auzotarren eskariz, bertan behera gelditu da proposamena.

✓ Apotzagan argiztapena hobetu da LED argiak erabilia.

ESKAERA

PILOTALEKUA:

• ORDUTEGIA LUZATZEA

• HOBEKUNTZAK ERAIKINEAN

KIROLDEGIA:

• HARRERA HOBETZEA

• KIROL ESKAINTZA HOBETZEA (asteaz zehar, asteburuan, ...)

• ALDAGELA LABAINKORRAK

• KANPOKO IGERILEKUA HOBETZEA EDO BERRIA EGITEA

• GELEN APROBETXAMENDUA HOBETZEA (2. solairua...)

SKATE PARKEA TOKIZ ALDATZEA

ERANTZUNA

— Astegunetako eta asteburuko ordutegia luzatu zen, baina, erabilera okerra, apurketak eta lapurretak direla-eta berriz murriztu behar izan da. Arazoa nola konpondu lantzen gabiltza.

— Konponketa lanak egin dira: leihoak aldatu, atek konpondu...

✓ Hainbat lan eta aldaketa egin dira harrera hobetzeko.

✓ Erabiltzaileei inkesta egin ondoren, asteburuko eta eguerdiko ekintzak eskaini dira.

✓ Arazoa konpontzeko egin beharreko lanak egin dira.

✗ Egoera ekonomikoagatik momentuz gai hau ez da lehentasunetan sartzen.

✓ Gimnasioan aldaketak egin dira, eta orain bi gimnasio daude (kardiobaskularra eta fitness). Tabernako gunea ere egokitu dugu.

✗ Momentuz ez da lekuz aldatzeko toki egokirik aurkitu.

KIROLA ETA OSASUNA

“Mens sana in corpore sano” azpiegitura eta zerbitzu egokiekin.

KOMUNIKAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

Kudeaketa garden eta parte hartzailean sakondu dugu, Udaletik herrira eta herritik Udalera!



ESKAERA

TELESKO TELEBANAKETA SAREA

ESKOHITZA PROZESUA MANTENTZEA

UDALETIK HERRIRAKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA

HERRIAN DAUDEN EKINTZAK KOMUNIKATZEA

HERRIKO ZERBITZUEN ETA LARRIALDIETARAKO ZERBITZUEN GIDA EGITEA ETA BANATZEA

UDALETXEKO HARRERA ORDUTEGIA LUZATZEA

PANEL DIGITALAK JARTZEA

ERANTZUNA

— Herritarrentzako arreta zerbitzua hobetu da, baina telebanaketa zerbitzuaren egitura definitibo zahaztea eta gauzatzea falta da.

✓ Urtero garatu da parte hartze prozesu bat, formatu ezberdinetan. Aurten, 2011n egin zen bezala, herritarrak bilduko dituen ekimena egingo da hurrengo 3 urtetako beharrak eta iradokizunak jasotzeko.

✓ Herriko hainbat tokitan informazio panelak jarri dira eta baita kexa eta iradokizunak jasotzeko buzoiak ere. Eskoriatza.net webgunea berritu da.

✓ www.eskoriatzakoagenda.com webgunea egin da, eta kontuak zabaltzen dira facebooken eta twitterren. Webgunean informazioa jartzeko aukera eman zaie elkartei. Herrian zehar, gainera, adierazpen libreko panelak jarri dira.

— Ez da oraindik egin, baina egiteko asmoa dago.

✓ Ordutegia goizeko 9:00etara aurreratu da, eta eguerdian, berriz, 14:30ak arte luzatu.

✗ Ez da egin.

✓ Eginda — Bideratuta ✗ Egin barik

Taulak osorik webgune honetan ikus daitezke:

www.eskoriatza.net





KULTURA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA

Kultur eskaintza zabal bezain anitza eskaini nahi dugu, herritarrekin garatutako ekimenak sustatuz.

ESKAERA

HERRIKO HAUR PARKEAK HOBETZEA



Torrebasen haurrentzako jolas parkea egin da, eta 2. fasea hurrek aukeratutako elementuekin diseinatu da.

LUIS EZEIZA ETA ARIZMENDIKO ESKOLA KOMUNITATEAK GERTURATZEA



Hezkuntza foroa sortu dute bi eskoletako guraso elkarteek eta Udalak elkarlanean, 2 motako ekintzak bultzatzeko nagusiki:
- Gurasoentzako prestakuntza.
- Aisialdian, auzolanean arituta, komunitatean parte hartzea.

UNIBERTSITATEAREKIN ELKARLANA SENDOTZEA



HUHEZIKo Hazitegi proiektuarekin elkarlanean Guraso Elkargunea sortu da 2013-2014an. Proiektu berriak martxan jartzeko hausnarketa egingo da. Kultura arloan elkarlana indartuz doa, hainbat ekintza elkarrekin antolatuta.

NEGURAKO ATERPEA GURASO ETA UMEENTZAT



Gurasoei eta haurrei zuzendutako aterpea martxan jarri zen 2013ko neguan, baina ez zuen arrakastarik izan eta erabilera oso eskasa izan zen.

KULTUR EGITARAU ZABALA ETA ERAKARGARRIA ESKAINTZEA



Kultura zerbitzuak, elkarteekin lankidetzan, herritarren espektatibak beteko dituen kultur egitarau anitza eta zabala eskaintzeko ahalegina egiten du hiler. Gainera, herriko elkarteei diru laguntzak edota laguntza logistikoa ematen zaie euren ekintzak gauzatzeko.

JAIETAN HERRITARREN PARTE- HARTZEA BULTZATZEA



Jaiak antolatzeko bileretara jendea joan dadin deialdiak egiten dira, baina erantzuna oso baxua da eta antolaketa lan horretan herriko elkarteek hartzen dute parte nagusiki. Bestalde, ahalegina egin da jaietan ekintza herrikoiak antolatzeko. Adibidez, "herrixa elkartuz" bezalako ekitaldiak, buruhandien lasterketa, koadrilen arteko jokoak, irrintzi txapelketa...

BIBLIOTEKAREN ZERBITZUA HOBETZEA



Ikasteko lekua sortu bibliotekan: bibliotekak duen egiturarekin oso zaila da esparru berezi bat jartzea. Dena dela, helduen esparrua toki aproposa da ikasteko. Wifi seinalea hobetuko da urte hau bukatu baino lehen, eta ordenagailu eramangarrirentzako entxufeak jarriko dira mahaietan. Informazioa emateko panel elektronikoa, erabiltzaileentzako ordenagailu gehiago, tabletak eta liburu elektronikoa jarri dira.

ANTZOKI BERRIAREN KUDEAKETA HERRIKOIA ETA PARTE-HARTZAILEA EGITEA



Herriko eragileekin eta gura duten guztiekin lan taldea osatu nahi da antzokia kudeatzeko: Zaldibar Antzokiko kultur mahaia.

INGURUMENA

Jasangarritasunaren aldeko keinuak bideratu ditugu, herri atseginago baten alde.



ESKAERA

IKASLEAK OINEZ



Eskoriatzako ikasle gehiago Almenara oinez joatea nahi da, eta hori lortzeko elkarlanean jarraituko da aurrerantzean ere.

ERREKAK GARBITZEA



Urtero egin da erreka zikinkeria garbitzeko eguna, baina, ez da lortu behar beste herritar hurbiltzerik. Bestalde, URA agentziak landarez, enborrez eta zuhaitzez garbitu du erreka.

HERRIKO MUGIKORTASUNA HOBETZEA



Erdiko kalea oinezkoentzako egokitu da. Kontzientziazio kanpainak egin dira mugikortasun jasangarriago baten alde (bizikleta, oinez...).

HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA LANTZEKO KANPAINAK EGITEA



Tupperrak erabiltzeko kanpaina egin zen eta errepikatu egingo da. Txakur kaken arazoa konpontzeko kanpaina prestatzen gabilta.

HONDAKINEN BILKETA HOBETZEA



Hondakinen bilketa sistema aldatu da eta emaitza ezin hobekak lortu dira: %80ko gaikako bilketa. Herrian eta udal eraikinetan hondakinak gaika jasotzeko zakarrontziak jarri dira. Puntu berde mugikorra berreskuratu da.

GARRAIO PUBLIKOAREN FUNTZIONAMENDUA HOBETZEA



Garraio publikoaren erabilera buruzko parte-hartze bilerak egin dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Kuartuenara oraindik ez da autobusik iristen eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egiten jarraitu arren, oraindik ez da hori konpondu.

KONPOSTA BULTZATZEA



Autokonposta eta auzokonposta martxan daude. Dagoeneko 280 familiak konposta egiten dute, eta 2014a bukatu aurretik 40 familia gehiagok aukera izan dezaten beste 2 gunek jarriko dira, bata Intxaurtxuetan eta bestea Olaetan.

KALEKO KATUEN ARAZOA



Ez da konpontzerik lortu.

ESKAERA

BERBALAGUNA MANTENTZEA ETA INDARTZEA



Berbalaguna proiektua sendotzeko baliabide gehiago ipini dira.

ARNASGUNEAK SORTZEA



Bertso eskola bultu da, horretarako finantziarioa eta baliabideak eskainiz; gaztetxoak euskararen mundura bideratu dira, horretarako gazte erreferenteen arteko harremanak sendotuz. Bide horretan sakontzen jarraitu behar da.

**EUSKARAREN EZAGUTZA:
- EUSKALTEGIA MANTENTZEA
- MATRIKULAZIORAKO
ERRAZTASUNAK EMAN**



Euskara ikasteko ikastaroetako diru laguntzak gehitu dira, eta azken ikasturteetan taldeak Eskoriatzan bertan, Leintz Udal Euskaltegiko lokaletan, izatea lortu da. Bestalde, haurrentzako hizkuntza errefortzuak eskaini dira udalekuetan, euren euskara maila hobetzeko.

**HERRIKO ETORKINAK
EUSKARAREN MUNDURA
GERTURATZEA**



“Auzoko” proiektua jarri da martxan, hizkuntza etorkinak eta bertako herritarrak harremanetan jartzeko, euskara bitarteko moduan erabiliz. Herriko ikastetxeetan dauden etorkinendako hizkuntza errefortzuak egon dira: HH eta LH-ko ikasleentzako ludotekan eta DBH-koendako berriz, euskaltegian.

**EUSKARAREN
KONTZIENTZIAZIOA:
ERABILERA BULTZATZEA.**



Azkeneko Kale Erabileraren Neurketan euskararen erabilerak behera egin duela ikusi zen. Bereziki kezkatzekoa da haurren artean egondako beherakada. Kontzientziazioan lan handiagoa egin beharra dago.

**MERKATARITZAN ERAGITEA:
“LEHEN HITZA EUSKARAZ”
MODUKO ZERBAIT**



Diru laguntza txikiak ematen dira errotulaziorako, baina ez da egitasmo sendorik gauzatu.

**AISIALDIAN EUSKARAZKO
ESKAITZA AREAGOTZEA**



Kirolean euskararen erabilera gehitzeko plangintza egin da: udal kirol zerbitzuan, Eskoriatza Kirol Elkartearen eta gainontzeko kirol taldeetan euskara gehiago erabiltzeko elkarlana abiatu da eta baliabideak ipiniko dira. Hurrengo urratsa Musika Eskolarekin egingo da.

UDALA EUSKARAZ



Legealdirako Hizkuntza politika onartu zen 2011n, eta 2013an V. erabilera plana.

ERANTZUNA

Eskoriatzan
ere euskaraz

EUSKARA

Eskoriatzan
euskararen ezagutza
eta erabilera
sustatzeko
baliabideak
areagotu ditugu.

GIZARTE ZERBITZUAK

Beharrian sozial
guztiak bermatu
dira, inolako
murrizketarik egin
gabe eta Eskoriatza
herri inklusiboa eta
aukera berdintasuna
bermatuko duena izan
dadin lan egin dugu.

ESKAERA

**HERRI LANETARAKO HERRIKO
LANGABEAK KONTRATATZEA**



Herriko hainbat pertsona kontratatu dira brigadan lan egiteko. Gainera, brigadakoez gain, administrari bat eta IKT arduradun bat kontratatu dira.

**LAGUNTZA SOZIALAK JASOTZEN
DITUZTEN PERTSONEK HERRIKO
BEHARREI ERANTZUNEZ PARTE
HARTZEA**



Diru laguntza jasotzen dutenei jarraipena egiten zaie, eta hitzarmen bat ere sinatu behar izaten dute konpromiso batzuk hartuz: formazioa hobetzea, hezkuntza ikastaroak egitea, lan orientazio zerbitzura joatea...

**HERRIA ZAHARREN EGOITZARA
GERTURATZEA, EKIMENAK BERTAN
ANTOLATZEA**



Hirugarren urtez, Zaharren egoitzaren aldeko Garagardo festa solidarioa antolatu da. Horrez gain Chiapasen aldeko elkarteak ekintza kulturalak egin ditu egoitzan. Udaleko hainbat arlotatik ere antolatu dira ekintzak bertan.

**GIZARTERATZEKO EDO LANEAN
HASTEKO ZAILTASUNAK
DITUZTENENTZAT IKASTAROAK
ANTOLATZEA**



Hainbat ikastaro antolatu dira. Aurten “kirol instalazioen mantentze-lanak eta herri-lanak” ikastaroa antolatuko da.

**EMAKUMEEN SEGURTASUNA
BERMATZEA**



Clara Campoamor elkartearekin lan kontratua hitzartu du Udalak bi zerbitzu hauek eskaintzeko:
- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei zuzenduriko laguntza sozio-juridikoa.
- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei arreta eskaintzeko protokoloa diseinatzea.

**OSASUN ZENTRUA
ORDUTEGIA ARRATSALDEETARA
ZABALTZEA ETA ASTEBURUETAKO
ESKAITZA ANTOLATZEA**



Ez da udalaren eskumenekoa. Gizarte Zerbitzuetako batzordetik eskaera egin zaio Osakidetzari.

**EMAKUMEENTZAKO PUNTU BELTZEN
MAPA OSATZEA**



Puntu beltzen mapa ez da gauzatu.

ETXEBIZITZA SOZIALAK



Udalaren jabetzako etxebizitzak alokairu sozialera ateratu dira, betiere, bat emergentzia sozialearako mantenduz. Aurten berriz aterako dira.

✓ Eginda − Bideratuta ✗ Egin barik

Taulak osorik webgune honetan ikus daitezke:

www.eskoriatza.net



TURISMOA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

Tokiko garapena ardatz, herri mailako eta eskualdeko proiektuak garatu ditugu.



ESKAERA

ATXORROTZEKO INDUSKETAK INDARTU ETA ETEKINA ATERATZEA

— Indusketen azken kanpaina egin da eta gizarteratze lana prestatzen gabiltza. Hurrengo erronka Atxorrotzi etekin turistiko/ekonomiko handiagoa ateratzea izango da.

AUTOKARABANA GUNEA

✗ Herritarrekin bilerak egin eta ekarpenak jaso dira, eta orain, martxan da bileretan jasotakoekin kokapen egokiena zehazteko prozesua.

ELIZATEAK ETA INGURUAK EZAGUTARATZEA

✗ Mendi ibilbideak berreskuratzeko proiektu bat aurkeztu da Foru Aldundian, eta horrek elizateak ezagutzeko aukera emango digu.

MERKATARITZA INDARTZEA

✓ Axtroki merkataritza elkarteak sortu da, indarrak batuta sinergiak bilatzeko. Elkarte horrek egiten dituen ekintzez gain, abian jarri da "axtroki" izeneko herri moneta soziala, tokiko ekonomia sustatzeko asmoz. Axtrokien erabilera finkatu beharra dago.

LANDAGUNEN EKONOMIA INDARTZEA

— Azken bi urte hauetan, Mankomunitateko garapen agentziarekin batera, bailarako lur bankua sortu da, lurra behar duten herritarrei lur egokiak eskaini ahal izateko.

AZOKA INDARTZEA

✓ Ostiraletako merkata herriko plazara ekarri da, leku egokiagoa izango delakoan.

EKINTZAILITASUNA INDARTZEA ETA ENPRESA BERRIAK SORTZEKO ERRAZTASUNAK EMATEA

— Udal jabetzako lokal batzuk alokairuan jarri dira, eta gehiago jartzekotan gabiltza. Hobari fiskal berriak onartu dira obra eta aktibitate lizentzietan.

LANGABETUEI LAGUNTZA

— Lanik ez dutenei prestakuntza eta aholkularitza eskaini zaizkie enplegu bat bilatzeko. Aldi berean, laguntzak gehitu dira hainbat arlotan, eta mugagabeko kontratazioak egiten dituzten herriko enpresei hobariak aplikatzea onartu da.

ESKAERA

KALE ETA AUZOAK: KONPONKETAK EGITEA ETA GARBIKETA HOBETZEA

✓ Eskatutako konponketa ugari egin dira, aske zeuden baldosak itsatsi eta leku irristakorretan tratamendua eman da. Garbiketa lanak hobetu dira eta eraikinetako kartel eta pintadak ere garbitu dira.

JOLAS PARKEAK: BIBLIOTEKAKO, HAURRESKOLAKO JOLASTOKIA KONPONTZEA

✓ Konpontzeko beharrezkoak zeudenak konpondu, pintatu eta berritu dira. Intxaurtxueta eta Dorletako parkeetan ere hobekuntza lanak egingo dira.

BIDEGORRIAK: SAREA OSATZEA

✗ Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean jarraitzen da Landara arteko bidegorria egokitu dezan. Elizateetara (Apotzaga, Bolibar...) zabaltzea ez da lehenetsi, ez zegoelako aurrekonturik.

ARGIZTAPENA: KUTSADURA LUMINIKODUN EREMUAK MURRIZTEA

✓ Olazarreko, Elorretako, Kuartuenako, Elizako eta Ibarraundiko argiztapena neurrirra egokitu da. Argiztapen kontsumoak nabarmen egin du behera.

HERRI SARRERA: INTXAURTXUETAKO ETXE EGITUREI IRTENBIDEA EMATEA

✗ Saiakerak egin badira ere, emaitza gutxi lortu dugu jabeekin. Bidegirekin eta Promociones Eskoriatzarekin lotu gabe zeuden gaiak zehaztea lortu da. Bestalde, proposamen bat badago, baina denbora beharko da gauzatzeko.

HILERRIA HOBETO ZAINZEA

— Hobekuntzak egin dira, baina oraindik gehiago egin behar dira. Hilerraren eta Olazarren arteko mendi-hegala konpondu da.

SAN PEDRO BERRURBANIZATZEKO LANAK AMAITZEA

— II. faseko (erdiko kalea) lanak burutu dira, eta aurrekontua izandakoan, III. fasea (atzealdea) egingo da.

MUGIKORTASUNA: OLAZAR, SANTA ANA ETA GAZTAÑADUI ARTEKO BIDEGURUTZEA

✓ Antsoategiko biribilgunea egin da, eta orain, Santa Ana eta Olazar auzoetarako sarreretan trafikoa arinagoa da. Gainera, geltokia lekuz aldatuta autobusek ez dute ikuspena murrizten, ezta zebra bidea oztokatzen ere.

EREMU ESTALIA SORTZEA

— Santa Mariñe plaza estaltzeko ideia-lehiaketaren oinarriak prestatzen ari gara. Aurkezten diren proiektuak prozesu parte-hartzaile batera aterako dira, zein egin aukeratzeko.

UR IHESAK KONPONTZEA

✓ Ur ihesak aurkitzeko teknika berri bat erabili da, eta zeuden ihesak konpondu dira. Gaztañadui kalean estolderia sarea aldatu da. Orotara, ur kontsumoa txikitu eta horren gaineko kontrol egokiagoa egitea lortu dugu.

APARKALEKUAK GEHITZEA

✓ 85 ibilgailuentzako aparkalekua egokitu da Zaldibarren, Intxaurtxuetan aparkaleku eremua zabaltzeko eta erabilera laburreko aparkalekuak pintatu dira Gaztañadui.

IBILGAILUEN ABIADURA MURRIZTEKO NEURRIAK

— Bide-zorua konpondu eta trafikoa berrantolatu ondoren, abiadura egokia adierazten duten seinale bertikalak jarri dira, eta lurrian ere seinaleak pintatu dira. Hurrengo pausua gehiegizko abiadura oztokatzeke zerbait jartzea izango da.

ZALDIBAR ANTZOKIA

✓ Zaldibar Antzokiaren II. fasea bukatu da eta III. fasea bukatzean dago. Urtea bukatu aurretik inauguratuko da.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

Herri atsegina izateko beharrezko mantentze-lanak garatu ditugu eta oinezkoak lehenesten dituen mugikortasuna garatu, ibilgailuentzat irtenbide aproposak eskainiz.

Taulak osorik webgune honetan ikus daitezke:

www.eskoriatza.net



✓ Eginda — Bideratuta ✗ Egin barik

2012

Zertan erabili eskoriatzarron dirua?

Udal aurrekontuak egiteko irizpideak denon artean adostu

2012ko azaroan EskoHitza saioaren bigarren ekitaldia egin genuen. Orduko helburua, zuzenean, **udal aurrekontuak** egiteko irizpideak adostea izan zen. **2013ko ekintza plana** eta udal aurrekontuak lantzen ari ginen Udalean, eta eskoriatzarren lehentasunak ezagutu nahi genituen. **Arlokako bilera** parte hartzaileak egin ziren, lau arlotakoak hain zuzen ere: kultura, gizartea, kirola eta turismoa/ingurumena. Bilera horietan udal aurrekontuaren lehenengo zirriborroa aurkeztu zen, parte-hartzaileen artean aztertu eta lehentasunak finkatzeko.

Horrez gain, 2013rako aurreikusten ziren hirigintza **proiektu esanguratsuenak** ezagutarazteko erakusketa egin genuen. Erakusgai jarri ziren Udalak egin asmo zituen **inbertsio garrantzitsuenak**, bakoitza bere zehaztasunekin. Herritarrek informazioa jaso ondoren, proiektuen artean hamar aukeratu behar zituzten, interesgarrienari 10 puntu emanaz eta interes gutxien zuenari 1. Botoa erakusketan bertan eta udal webgunean ere eman zitekeen eta guztira 126 pertsonak hartu zuen parte bozketan.

Zertan dira orduan esandakoak?

Eskuma aldean, puntuazioaren arabera zaikatzuta, botoetara jarritako proiektuak ikus daitezke.

1		2		3	
	KALEA ASFALTATZEA 883 PUNTU 96.000 €		ZALDIBAR APARKALEKUA 781 PUNTU 58.000 €		KALEA OINEZKOENTZAKO JARTZEA 770 PUNTU 30.000 €
4		5		6	
	ZALDIBAR ANTZOKIRAKO EKIPAMENDUA 606 PUNTU 100.000 €		AUTOBUS GELTOKIA LEKUZ ALDATZEA 580 PUNTU 11.000 €		OLAZARREKO HORMA EGONKORTZEA 570 PUNTU 51.000 €
7		8		9	
	ZALDIBAR ANTZOKIAREN INGURUA URBANIZATZEA 473 PUNTU 90.000 €		GAZTAÑADUIKO UR-HODIA ALDATZEA 432 PUNTU 54.000 €		UR BILTEGIETAN GAILUAK JARTZEA 427 PUNTU 22.000 €
10		<input checked="" type="checkbox"/> Eginda <input type="checkbox"/> Bideratuta <input checked="" type="checkbox"/> Egin barik			
	KIROLDEGIKO GIMNASIOA 426 PUNTU 16.000 €				
11		12		13	
	SAN PEDRO URBANIZAZIOA (3. FASEA) 375 PUNTU		LUIS EZEIZAN HOBEKUNTZAK EGITEA 335 PUNTU		UDALETXEAN HOBEKUNTZAK EGITEA 66 PUNTU

2013

KRISIAREN AURREAN,

zer proposatzen duzu?

Krisiaren aurrean zer proposatzen duzu?

Zertan erabili 10.000 euro

2013ko abenduan egindako EskoHitzaren ardatza **krisia** izan zen, hori baita herritarrengan eragina duen arazo larrienetako bat. Eskoriatzako Udalak 90.000 € baino gehiago erabili zituen 2013an gizarte laguntzak emateko eta enplegua sustatzeko. 2014ra begira, berriz, **zerga eta tasa gehienak ez igotzeaz** gain, aurrekontuetan 10.000 € gehiago bideratu zituen krisiak Eskoriatzari eta eskoriatzarrei eragindako egoerari aurre egiteko.

Udalak egin dezakeenari buruzko iritziak, ideiak eta proposamenak ezagutzeko bi bilera egin ziren 2013ko abenduan. Gainera, bilerara joaterik izan ez zutenen ekarpenak jasotzeko beste bide batzuk ere egokitu ziren, bai telefono bidez, bai internetez eta baita udaletxean, liburutegian eta kiroldegian dauden buzoien bitartez ere.

Jasotakoetatik zer egingo da 2014an?

Hauk dira landu diren lerro nagusiak, eta 2014an **10.000 euro honako hauetan inbertituko dira:**

- ⇒ EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK ETA LOKALAK.
- ⇒ MERKATARI ELKARTEARI BIDERATUTAKO DIRU KOPURUA HANDITU.
- ⇒ AUTOKARABANA GUNE BAT SORTZEA TURISMOA INDARTZEKO.
- ⇒ "ZUK ZEUK EGIN" IKASTAROAK ANTOLATU (DIRUA AURREZTU AHAL IZATEKO).
- ⇒ ENERGIAREN ASTEA ANTOLATZEA ETA ALDI BATERAKO KONTSULTORIA ZERBITZUA ESKAINTZEA ENERGIA (ETA DIRUA) NOLA AURREZTU AZALTZEKO.
- ⇒ IKASTAROAK ANTOLATZEA GIZARTE ZERBITZUEKIN BATERA.

2014


EskoHitza: denona delako


Orain arte egindakoaren balantzea eta urrats berriak


Azaroaren 8an EskoHitzaren 4. ekitaldia gauzatu nahi dugu, hasierako urtean egin zen bilera handiaren itxura errepikatuz: herritar guztiak elkartu, berriz ere **bakoitzak berea esateko eta denok denona entzuteko**. Urte hauetan emandako urratsen eta gauzatutako proiektuen balorazioa egingo da. Hasierako EskoHitza hartan planteatutako herri ikuspegiaren betetze maila aztertuko dugu, eta **aurrera jarraitzeko** eman behar diren **urrats berriak identifikatuko ditugu**.



ETORTZEKO BAZARA, MESEDEZ JAKINARAZIGUZU:


 partehartzea@eskoriatza.net

 943 71 46 88

 Ludoteka zerbitzua egongo da

Informazio gehiago:
www.eskoriatza.net



 #eskohitza